

# Teloia behera!



CARLOS VILLAGRAN

KOLDO GOITIA / DONOSTIA

**B**ukatu da ikuskizuna. Aurten ere Aste Nagusia nahi baino azkarrago joan zaigu. Hainbeste musika, txaranga eta berbenekin konturatu ere ez gara egin festak dagoeneko bukatu direla. Beti gauza bera gertatzen zaigu. Datozen hilabete hauetan ez ditugu erraz ahaztuko bizi izan ditugun momentu alaiak.

Festak bukatu berriak badira ere, hurrengo urtekoen zain egongo gara bihartik aurrera. Izan ere, hain laburrak egiten zaizkigu festak...

Gauzak horrela, Aste Nagusiaren balantzea egitea baino ez zaigu falta. Nostalgia eta malenkolia alde batera utzita, ikusi ditugunak gogoratu eta alde onak eta txarrak aztertu beharko ditugu. Orokorrean ikusita, Aste Nagusiak arrakasta izan du: egindako prestakizun guztiak pena merezi izan dute. Dena dela, beti bezala kritika-

rako lekua ere badago.

Betidanik esan da Donostiako Aste Nagusia ikusteko festa dela eta ez parte hartzekoa; horrela koadrilak adibidez festetan baztertuak ikusten dira eta kaleko jende arruntak eta herri elkarteek antolatutako ekitaldirik ez dago. Aste Nagusia ikuskizun erraldoia izango balitz bezala anto-

Azken kontzertua eta azken pelikula eman zituzten bart Ondarretako hondartzan. Bukatu da ikuskizuna.

latua dago. Dena oso polita da, ederra, baina hiritarrek kanpoko aldetik begiratu behar dute. Erakusleihotik kanpoan hiritarrak daude eta barnean Aste Nagusiko ekitaldiak.

Festak Parte Zaharra, Alderdi Eder eta Bulebarrean egiten dira, hortik kanpo Donostia basamortu urbanoa baino ez da. Gros, Atego-

rrieta, Loiola edo Amara auzoetan ez da ezertxo ere egiten, noizik behin txarangaren bat ausartu da auzo horietara joatera, berehala hanka egiteko. Aurten agertu ere ez dira egin Donostiako periferian.

Ekitaldi gehienak gauez egin beharrekoak dira: su festa, zine emanaldiak, kontzertuak, berbenak,... eta

egunez ezer gutxi egoten da ikusgai. Denbora joan ahala, Aste Nagusia gau-txorien festa bihurtzen ari da eta egunez herri kirolak, haurrentzako ekitaldiak eta protokoloa baino ez da egiten. Kontzertuei dago-kionez, hauek bederatzietan egiten dira, benetan ordu desegokia. Hamaiketan hasten den zine emanaldia aurreratu beharko litzateke eta kontzertua beranduago egin.

Donostiako Aste Nagusia Madrileko Egunarekin hasia izan da aurtengo gertakari bitxiena. Madrileko alkate jauna ere gure artean izan genuen. Alvarez Manzano eta Odon Elorza ederki konpondu ziren. ABC egunkari madrildarrak eman zigun abisua: «Semana Grande de San Sebastian, Fiesta de España».

Baina amaitu da. Igandea da, eta artifiziozko suekin batera joan zaizkigu artifiziozko festak. Teloia behera! ●

**permar**  
 San Franzisko, 33 Tfnoa.: 27.85.00 DONOSTIA  
 Tenerias, 14 Tfnoa.: 24.86.97 GASTEIZ  
 Aralar, 42 Tfnoa.: 24.09.89 IRUÑEA

APALATEGI ARINAK  
 ALTZAIURAK  
 SOLAIRU  
 ARTEKOAK  
 MANPARAK

**Egunkaria**  
**Festa on irakurleoi!!**

**Casa Anastasio**  
 JATETXEA  
 Euskal Sukaldaritza  
 EASO KALEA 19 DONOSTIA Tfna.: 42.63.20

**BILINTX LIBURUDENDA**  
 DONOSTIAN Euskal gaiak: Fermin calbeton, 30 Tel.: 420930  
 Gai orokorrak: Esterlines, 10 Tel.: 420224/420080  
 IRUNEN: Republica Argentina, 4 Tel.: 626817  
 TOLOSAN: Arostegieta, Tel.: 673533  
 BERGARAN: Ibargarai, 14 Tel.: 764050

**XALBADOR LIBURUDENDA**  
 Comedias, 14  
 Tel.: 224167/229981 FAXA: 211061  
 31001 IRUÑEA

**URPETXINDORRA LIBURUDENDA**  
 Iparragirre 26  
 Tel.: 4240228/4244396 FAXA: 4244235  
 48011 BILBO

**HEPORA ELKARTEA ALDE ZAHARRA**

- Bokatak
- Eguneroko bazkariak
- Afariak

**ZURE GIROA!!**  
 Ikatz kalea, 14  
 Tfnoa.: 42.22.63 DONOSTIA

**ZURUTUZA C.B.**  
 BILTEGIAK

- Esmalteak
- Bernizak
- Pinturak

**EUROCOLOR**  
 PINTUREN BANATZAILE BAKARRA

Mateo Errota 3-6 lokala 27 Pol. Tlfn.: 47.02.71  
 MARTUTENE DONOSTIA